

Askapen faltsua

JEAN LOUIS DAVANT



EUSKADIREN izenean alkar hil dute bi gaztek. Irlandaren bide galgarria hartzen dugu euskaldunok. Duela laster 70 urte, hego Irlandak barneko autonomia ardietsi zuenean, gerla zibilean sartu ziren, batetik autonomiarekin konformatzen zirenak, bestetik independentziaren aldekoak. Ondorioa zer izan zen badakigu: sasi askapen bat baizik ez du ezagutu hego Irlandak, nahiz independentzia lortua duen geroztik. Elitea galdurik, bere hizkuntzari uko egin dio, ingelesez mintzo da. Ekonomian ere, Ingalaterraren azpiko dago beti. Eta politikan, ez balego bezala. Hots, objektiboki, Ingalaterrako erreinuaren kolonia bat baizik ez da Eireko errepublika. Eta ipar alde bere gisa uzten du, are txarragoa den egoera batean.

Horrelako etorkizun hilkorra iragartzen ahal dugu Euskal Herriari, baldin gaurko bide galgarriari ez badiogu bertan amaiera emaiten. Bizitzekotan, bide bakar bat dugu: Abadia eta Xahorena. Iduriz alkar hasiatu behar zuketelarik, alkarrekin lan egin zuten Abadia Zuriak eta Xaho gorriak. Noizbait horrela egin beharko dugu batzuek eta besteak. Orain hobe, Euskal Herriak badeno.

Botere guztiak eskuinekoak dira

J.VELEZ DE MENDIZABAL



AURTENGO udako egun sargarisuetan, gorputz eta izpirituari ezer gutxiarik gogorik geratzen zitzaie, ekialdetik heldutako lurrikara-oihartzunak astindu gintuen bortizki. Ez dakit zeinek esan zuen Abuztua buruhausterik gabeko hila zena. Ez zuen asmatu, ez halafede!, azken bi urtetakoei bagagozkie behintzat. Baina, ziurrenik, horrek ez ditu gure politikoak arduratuko... ordu extrak egiten ohituta bait daude.

Marxismoa oraindik baliagarria den ala ez eztabaidatzea, mundu osoko alderdi komunistak sozialdemokrata bihurtu behar ote diren ala ez baieztabatzea, europar estatu libreek (?) baltikar errepublikak beranduegi onetsi zituztela salatzea, Errusiak bere mugak aldatuko ote dituen ala ez aztertzea... guzti hori aipatutako lurrikara politikoak zerbitzatu dizkigun kolore askotako arloak dira. Aldaezintasunaren teoria lurreratu da, berriz ere, gizakiak —zerbait izatekotan— aldakor bait dira. Baina, kontuz!, ba da salbuespen bat horren kontra beti agertu dena: boterean ezarritako gizabanako higieztina. Aldagaiztasuna fatalismoaren sinonimoa izanik, gizakia behin agintaritzara iritsiz gero fatalista bilakatzen da: hilezkortasunaren grazia izan dela altxatua dirudi.

Yeltsin, Gorbachov, Bush, Castro, Deng Xiaoping, Ardanza... eskuineko politikoak ditugu agintean daudelako. Eta baieztaben hori argi frogatzen dute, emaitza zuzenetan ezekiz haiek errealtate objektibotzat hartzen dituzten ideietan ere. Gaurreguneko jeinuak beharrezko aldapan kokatzen dira, gaurrez geroztik munduko ibilaldiaren erantzunkina euren eskuetatik pasatzen dela pentsatzen hasten diren unean bertan. Paradoxa soziologikoak gizadia bi multzotan banatzera garamatza: masa haundia, azpikoa, alde batetik eta zartakina kirtenetik eusten duten pribiligiatuak, bestetik. Azken horiek ez dute, jakina, beren egoera aldagai.

Bere oporretatik zizko eginda etxeratu zen Xabier Mendiagak zioten bezala, «beste akatsen gaineko espekulazioa agintariengan amaitzen da; horien estiloaz apusturik egin beharko bagenu, beti garai-le».

DEIA

Nazionalismoaren eskakizunak

Euzkadik bere independentzia deklaratu balu, Espainiak horren kontra armada erabiltzea onartezina litzateke, baita ere Europako Komunitateko estatu guztientzat, nahiz eta momentuz inongo banatzearen aurka egon, Europako Komunitate Ekonomikoaren egoera narriotua eta konplexua gaiztotu baino ez bait luke egingo. Ezin dugu Euzkadiren independentzia argudiatu armadak eragindako beldurratik, duela gutxira arte horren erantzuna errealtate izango zena. 'Historiaren egiak' ere jasotzen du. Kanpo Arazoetarako ministroak, gobernuburuak eta Armadako Estatu Nagusiak jakin behar dute hori, Konstituzioak besterik badio ere.

J.R. SCHEIFLER / 1991-IX-9

egin Pil pilean

Euzkadiren 'Independentzia' eskatzen duten Udalak badira dagoeneko. Eta Catalunya ere iritsi da itsaskia. (...)

HEMEROTEKA



PERDIS / EL PAIS / 91-IX-9

Gidoiak koartelako ahotsa ere jaso du, eta EAJk horri erronka egin nahiago izan du, independentziaren gaiari aurpegi eman baino.

Aldaratzera, hala ere, EAren eskutik etorri da. Alderdi hori, ez da urtebete izango, autodeterminazio eskubidearen bertsio bihurritan makurtu zen mantso. Gasteizko Legebiltzarrean aurkeztuko asmoz, eta orain ordea, momentuz Udaltan HBk bultzatutako iniziatibatarra gehitzen da.

J. IRATZAR / 1991-IX-9

ABC

Eztabaida baino gehiago

Independentistek beldurra galdu dute, arrazoi historikoen jabe sentitzen dira eta oso ondo baliatzen dira, SESBtik banatutako herrialdeen onarpenari dagokionean, gure poli-

tikariak Mendebalekoen atzetik joate horretaz. Baliazte hori erabatekoa izango da 'amankomuneko kanpo politikak' dauden Estatutik banatzeko orduan, Kroazia edo Eslovenia onartutakoan Baltikoko nazioek baino titulu historiko gutxiagorekin. (...)

Bitartean ETak eskuak igurtzen ditu. Ez du armak utzi beharrik, Garaikoetxeak gogorarazten dion modura, munduarean jasotzen ari diren gertaeren oinardeko eta onuradun sentitzeko. Arzalluzek berak, beldurgabe onartu du ezin dela ETA kondenatu armak erabiltzeagatik, baliabide berdinekin lortuko litzatekeen Kroaziaren independentzia onartzen bada.

L.CONTRERAS / 1991-IX-9

EL MUNDO

Aldaketak

El Mundo egunkariak auto-

determinazio eskubidea onartu arren ez da Euskadi edo Kataluniako independentziaren aldekoa, banatzen direnentzat eta banatzea uzten dientzat kaltegarria izateaz gain, egite anakronikoa litzatekeelako —eta premiarik gabekoa— martxan dagoen Europako eraikuntza prozesuarentzat. Aurki instantzia supraestatalak izango dira bere gain hartuko dituztenak, kontinente osoaren konpetentziak eta baita ere hasiera batean Estatu Espainoleko Gobernu federaren esku izango diren ekonomi, defentsa eta kanpo politika arazoak. Alderdi nazionalisten eta beren hauteslegoaren jarrerara politikoa eta soziologikoa zorrotz azterturik, ziur gaude gainontzeko alderdien aldetik hitz egin nahi ez izateak Katalunian nahiz Euzkadin jarrera bereizleak areagotzea baino ez lukeela egingo.

EDITORIALA / 1991-IX-9

ZUZENDARIARI

D.Amundaraini

D.Amundarainek EGUNKARIAN (91-VIII-28an) aiereratutako erantzuna dut gogoan. Bertatik bi pentsakizun jaulkitzen zaizkit.

Baga. Ikusi nahi nituzke aipatu kalifikazio fitxa horiek, bertatik ondorio bitxi ugari atera daitezkeen baina. Horien artean behinena: EGAk eskatzen duen maila linguistikoko bereko azterketa jarriko balitzaio egun bere lanean inongo konplexurik gabe ari den inguruko erdalerritako funtzionario zenbaiti seguru naiz larri lebilkeela berau gainditzeko.

Eta biga, gaitasunari buruzkoa. Ez dakit inoiz ikusi ote duzun liburu dendetan maiz aurki daitezkeen liburuska famatuak:

«Cómo superar con éxito un test psicológico». Ez al da egungo euskalgeztetan halako formulatxo andana ematen ditxosozko azterketa arrakastaz gainditzeko?

Hizkuntz irakaskuntzaren teoria potoloak alde batera utzita goazen kasu praktikoak ikustera: Eukene Txintxurreta, 17 urteko neska euskadunari, BBB-ko 3. mailan ari dena, EGA titulu ateratzeko gogoia piztu zaio. Dirudenez lana aurkitzeko, zenbait arlotan, behar omen. Etxean euskaraz jarduten du, kalean lagun batzuekin, ere bai. Ikasketak normaltasun osoz euskaraz egin ditu. Eta halako hatua soinean darumala aurkezten da. Bazuen berak gauza zaila eta katramilatsua zeneko susmoa, horregatik ida-

zlanean eta inoiz erabiliko ez litzatekeen aditz forma kuriosoak, tradizio zaharri ostutako sintetiko paregabeak eta abar sartzen saiatzen da. Alperrik, Eukene, zoritxarrez ez da euskalgeztetik pasa, beraz ez du berridazketa borobila egiten ikasi eta beste guztia ondo egin arren hankamotz geratu zaio azterketa. Jokoa zein den ikasi du, hurrengoan, udako murgiltze sistema paregabeari esker berridazketa zoragarriak egingen aritu ondoren erabateko konfidantzaz aurkeztu eta gaindituko ahal du!

Eta hasierako galderara bueltatzen gara: EGAn zein motatako gaitasun neurtzen da?

PATXI GUZUR IBARRA

PERTSONAIA



Libia

Kontxako estropek ziraden atzo ez zen festa bat Ulian lau untzientzat zegoen borroka nor gehiagokan aldia diferentzirik ez zen irteeran norena hobe taldia San Pedro jaun da jabia koadrila ona ta trebia (BIS) estropa irabazi markak hautsi hori da abildadia gora Aita Manuelen semeak ta gora zuen Libia.

EUSEBIO LASARTE

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea: INMA GOMILA

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak: NEREA AZURMENDI LUZIEN ETXEZAHARRETA INAKI URIA

Publizitatea: KORNELIO ROTETA



Batzorde Parekidea: 72564 E Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK

Egoitza soziala, Pulizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxe: 45 59 57
 Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxe: 36 54 93
 Araba: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxe: 23 38 73
 Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxe: 17 80 77
 Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.eskuma. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxe: 423 94 60
 Lapurdi / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxe: 59 25 75 11